

Mapen bila, galdu gabe

LAPURRETA ERRESUMA BATUKO LIBURUTEGIAN. XVI. MENDEKO IPAR AMERIKAKO BI MAPA ETA XVII. MENDEKO INGALATERRA BERRIKO ETA KANADAKO BESTE BAT DESAGERTU DIRA, BALIO HANDIKOAK HIRURAK

AGENTZIAK – LONDRES. Erresuma Batuko Liburutegitik hiru mapa lapurtu dituzten lapurrek ez dute inolako artxiboren argibiderik behar izan zer lapurtu jakiteko. Harrapatu dituzten mapek dirutza balio dute, milaka dolar; horregatik, atzean helburua arras ongi zehaztuta zuen taldea dagoela uste dute adituek; liburu artean galtzen ez dena, nora jo oso argi duena.

Harrapatu dituzten mapa horietako bi XVI. eta XVII. mendeetako Ipar Amerikakoak dira, eta bestea Ingalaterra Berrikoa eta Kanadakoak da. Duela gutxi arte Erresuma Batuko Liburutegian zeuden, Londresen. Baina dagoeneko ez daude han. Iragan martxoan lapurtu zituzten bi lehenak, eta ekainean bestea. Gainera, ez dira desagertutako artxibo historiko bakarrak: azkenaldian mapa ugari lapurtu dituzte, Londresko liburutegitik ez ezik, baita AEBetako hainbat unibertsitateetatik ere. Hori dela bide, adituek uste dute mundu mailako lapur sare batek egin dituela lapurretak, bai Londreskoak baita AEBetakoak ere. Liburutegitik desagertutako Ipar Amerikako bi mapak XVI. mendekoak dira; Ingalaterra Berrikoa eta Kanadakoak, berriz, XVII. mendekoa da. Ipar Amerikako mapetako bat egurrezko grabatua da, 1578koa. Lapurrek George Besten A True Discourse of the late Voyages of Martin Frobisher liburutik hartu dute, Poliziaren esanetan, labana batekin moztuta. Marinel ingelesa izan zen Frobisher. Bidaia ugari egin zituen orduan Mundu Berria izendatu zuten lurraldera, eta askotan Best izan zuen bidaide. Hala, A True Discourse of the late Voyages of Martin Frobisher liburuan, Frobisherrek eginiko bidaia horietako bat jaso zuen Bestek. Desagertu den beste mapa Peter Apian matematikari eta kartografo alemaniarrek eginikoa da; Ioannis Camertis Minoritani argitalpenetik desagertu da. Liburu hori 1520an argitaratu zuten, Venezian. Ingalaterra Berriko eta Kanadako mapa geroagokoa da, 1624. urtekoa, eta William Alexander eskoziarraren An Encouragement to Colonies argitalpenetik lapurtu dute.

AEBetako unibertsitateetan ere izan dira lapurretak

Londresko saltzaile batek, Jonathan Potterrek, The Independent kazetari adierazi dio ostutako hiru mapak oso bereziak direla, bildumagileek oso gogoko dituztela, eta lapurtu dituztenek ondo baino hobeto zekitela zer mapa hartu. Izan ere, Erresuma Batuko Liburutegian mapa andana dago, herri eta mende askotakoak, baina ostu dituztenak bezain preziazurik gutxi.

AEBetan ere izan da antzeko lapurretarik. Hainbat unibertsitateetan lapurtu dituzte mapa zaharrak. Esaterako, Yaleko Unibertsitateko liburutegian. Gertatu den guztia dela eta, Ikerketa Bulego Federalak, FBIk, beren funtsetan daukaten material guztiaren zerrenda osoa egiteko eskatu die liburutegiei zein antzeko erakundeei. Baina ez da erraza. Erresuma Batuko Liburutegiak, esaterako, 150 milioi liburu ditu, 650 kilometro hartzen dituzten apalategietan pilatuta. Hainbeste libururen kontrola eramatea zaila egiten zaie arduradunei. Liburutegiko langileetako batek onartu du egun 6.990 ale daudela dagozkien apaletatik kanpo. Hala eta guztiz ere, adierazi du beste nonbait egon daitezkeela, edo, beste barik, katalogotik kanpo.